

Aitziber Barona, pilotua

"Gorrito dut kotxea gidatzea"

21 URTE DITUEN ERMUAR HONEK 2004KO UZTAILEAN BUKATU ZITUEN PILOTO IKASKETAK SALAMANCAN. TXIKIA ZENETIK OSO ARGIZ ZEUKAN ZER IKASI NAHI ZUEN. SELEKTIBITATEA BUKATU ETA HAMABOST EGUNERA HASI ZEN PILOTO KARRERA EGITEN. GAUR EGUN GRAN CANARIAN BIZI DA ETA HEGAZKINEKO AZAFATA LANEAN ARI DA.

-Piloto ikasketak egin dituzu, non? Zenbat denboraz?

Bi urtez aritu nintzen Salamancako aireportuan dagoen Adventia Eskolan. Selektibitate bukatu eta 15 egunera hasi nintzen. Bi urtetan materia guztia ematen dizute eta oso kontzentratua dago. Horregatik, nahiko gogorra da, ez genuen oporrik... Hala ere, han geundenok oso argi geneukan zer nahi genuen eta asko ikasi behar bada ere, gogozko lekuan aldarrikatu ez!

-Nola ikasten zenuten?

Alde praktikoa eta teorikoa dena batera egiten genuen. Hau da, teoria eman, klasean simuladoreekin aritu eta gero benetazko hegazkin txikietan aritu. Hasieran instruktoreekin eta gero bakarrik. **-Nolakoa izan zen zure lehenengo hegaldia bakarrik?**

Beno, egia esan galdu egin nintzen eta oso urduri jarri nintzen, kontrolatik ematen zizkidaten aginduak ez nituen ulertu ere egiten. Nahiko momentu txarra izan zen. Gaur egun konturatzen naiz aukera guztiak daudela berehala irtenbidea bilatzeko, ia ezinezkoa dela gertatzea.

-Lasaitasuna mantentzeko zerbait?

Denborarekin egin egiten zara eta lasai egoten ikasten duzu.

-Zuk ingelesez egin zenituen ikasketak guztiak. Zer dela eta?

Bai, nik horrela aukeratu nuelako. Egia esan hegazkintza arloa ingelesez mugitzen da, eta horrela Europa mailan lan egiteko aukera gehiago edukiko dudala uste dut.

-Ez da karrera militarra, beraz kostu ekonomiko handia?

Bai, dirua edukita ez da zaila. Egia da dirua behar dela, behin ikasketak bukatuta, lizentzia badaukazu

ten zizkidaten aginduak ez nituen ulertu ere egiten. Nahiko momentu txarra izan zen. Gaur egun konturatzen naiz aukera guztiak daudela berehala irtenbidea bilatzeko, ia ezinezkoa dela gertatzea.

Bai, dirua edukita ez da zaila. Egia da dirua behar dela, behin ikasketak bukatuta, lizentzia badaukazu



baina hegazkin komertzial handiak pilotatzeko, esperientzia orduak eskatzen dituzte (1000 ordu) eta horretarako zuk zure aldetik turismo hegazkin bat alokatu edo hondartzetan ibiltzen diren propaganda hegazkin txikiak pilotatu, edo fumigatzen ibiltzen diren hegazkintxoak pilotatzen lortu daitezke. Baina fumigatzeko edo propagandazko hegazkinak pilotatzeko, ikastaro bereziak egin behar dira eta horiek oso garestiak dira, agian bakoitza milioi bat.

-Beraz zuk hegazkin txikiak

pilota ditzakezu?

Bai, edozein turismo hegazkin pilota dezaket. Izan ere, inoiz joan naiz Burgosera orduak egitera, ordubete 100 euro Piper hegazkintxo batean. Hegazkin komertzial handiak pilotatu ahal izateko, konpainiak berak ikastaroak ematen dizkizu prestatzeko.

-Baduzu kotxea gidatzeko baimenik?

Bai, piloto baimena atera eta gero kotxeko baimena atera nuen. Egia esan, gorrito dut kotxea gidatzea, ez zait batere gustatzen.

"Zaila da konpainietan sartzea"

-Bitxia da, hegazkinak pilotatzea izugarri gustatu eta kotxea batere ez gustatzea?

Ez dakit, kotxean zoazenean zure albotik beste auto mordo bat pasatzen da, hegazkinean ez bezala, gainera airean goian zaudenean, horrek sortzen dizun sentsazioa, ezin da konparatu.

-Esaten denez piloto izateko oso froga gogorrek pasatu behar dira. Zuk ere pasatu behar izan dituzu?

Mediku agiria urtero pasatu behar da eta bihotzeko gaixotasunik edo asma bezalako gaixotasunik ez da eduki behar, bestela, ez da hain gogorra.

-Behin ikasketak bukatuta, lan egiteko aukerak?

Momentu honetan zaila da, pilotoentzako lan gutxi dago, asko langabezian daude. Ez da erraza konpainietan sartzea.

-Gizon asko dagoen lanbidea da, emakumeak zail dute hegazkinak pilotatzea?

Nik ezetz pentsatu nahi dut eta nire esperientziaren arabera, ez dut ezberdintasunik nabaritu. Klasean geundenen ni nintzen neska bakarra, eta besteak bezala tratatzen ninduten.

-Beraz, betidanik oso argi izan duzu piloto izan nahi zenuela.

Bai, gogoratzen naiz txikitant askotan esaten zidatela, ea ez nuen piloto baino nahiago azafata izan nahi. Haserretu

egiten nintzen, ea neska nintzelako azafata izan behar nuen esaten nien.

-Eta gaur egun, azafata lanetan ari zara Kanariar irletan.

Bai. Egia esan kasualitatez, Ermuan nengoela lana bilatu nahi nuen, dirua aurrezteko eta nire formazioa hobetzeko; orduak sartu edo ikastaroak egiteko. Orduan, egunkarian iragarkia ikusi nuen eta deialdira aurkeztu nintzen eta hartu ninduten.

-Zer moduz moldatzen zara azafata lanetan?

Oso ondo, uste baino hobeto. Lanean oso giro ona daukagu, jendearekin primeran moldatzen naiz eta bidaiariekin ere oso ondo.

-Ordutegia nahiko gogorra omen da.

Egunean 12-14 ordu egiten dugu lana. Normalean hilean 15 egun egiten dugu lan eta

beste 10 egun atsedena hartzen dugu. Gainera atsedenean ordu eta egunak oso ondo errespetatzen dira.

-Azken boladan hegazkinek zeresan handia eman dute, abuztuaren izan diren istripuak direla eta. Zuk ez diozu beldurrik izango hegan egiteari?

Bat ere ez. Nire ustez albisteak ere nahiko sentsazionalistak dira kontu horrekin. Egia da hegazkin batek istripuren bat duenean ohiartzun handia daukala eta munduko edozein lekutan gertatuz gero, komunikabide askotan agertuko dela. Beste garraio bideetan gertatzen direnak agian ez ditugu ezagutzen.

-Noizko zu hegazkin bat pilotatzen?

Ez dut eperik jarri nahi baina oso argi daukat lortuko dudala hegazkin komertzialak pilotatzea.



ILEAPAINDEGIA
Iraskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

ZUBIAURRE
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17
48260 ERMUA